LA
TALLER
Taller y Galería de Grabado

C. Zumárraga 7,
Entrada Maestro Icíar
48006 Bilbao
t: 94 679 22 92
m. 645 005 426
info@lataller.com
www.lataller.com

BLOKE ETA MALDA

JULEN AGIRRE EGIBAR

Gelaren erdian objektu ezagun bat. Atzealdean Jazz-a entzuten da, epel. Argitasun nabaria dago, baina eguzkirik ez, argi zurizka bat bakarrik, airean hauts-partikula ñimiñoak; dena garbi ageri da, beste objektu guztiak ongi kokatuta daude, dena dago bere tokian. Txapinak aparadore azpian, plater garbitu berriak, eskuzapia tiraderatik zintzilik. Koadrozko motibo urri batzuk, gorria, urdina, orlegia...

Gelaren erdian objektua. Elementu ezagunetan ezezagunena eta ezezagunetan ezagunena. Altzariak dirdiraz baina diskrezioz jantzita, oreka perfektuan. Paretak irudiz josita, neurrira kokatuta, toki egokian.

Ke-laino txiki bat. Euria hasi du. Harriak lehen tantekin margotzen dira. Irribarre bat. Aho barruan hortz gehiegi. Dena da hain ezaguna baina hala ere...

Kare igurtzia eta egurra tarteka. Ke hari bat.

Gorputz barruan sentitzen da kilima ezerosoa.

-Bai... Baina...

Argi bat piztu da gelaren erdian dagoen objektua argiztatzeko. Beethovenen 7. sinfoniaren amaiera aditzen da orain. Planoaren beheko aldean esku batzuk galtzerdi beltzak zabaltzen ari dira leihotik kanpo eskegita dagoen zintzilikailuan. Gainetik lona urdin bat.

Iritsi orduko desagertu da.

Ikusten dugunaren eta begiratzen dugunaren arteko ezberdintasuna zein da?

Atertzearekin batera agertu da laukizuzenaren erdigunean, baina ez erdi-erdian, eskeletoa, jantzi gabeko erraldoi gosetu bat bezala.

Eraikina pausatuta dagoen belardian ez dago lorerik. Oraingoz.

Petrikor usaina.

Arrate Rodriguez

LA
TALLER
Taller y Galería de Grabado

C. Zumárraga 7,
Entrada Maestro Icíar
48006 Bilbao
t: 94 679 22 92
m. 645 005 426
info@lataller.com
www.lataller.com

BLOKE ETA MALDA

JULEN AGIRRE EGIBAR

Un objeto conocido en el centro de la habitación. Al fondo se escucha Jazz, se está templado. Hay mucha claridad, pero no hay sol, solo una luz blanquecina, minúsculas partículas de polvo en el aire; todo está claro, todos los demás objetos están bien posicionados, todo está en su lugar. Las zapatillas de casa bajo el aparador, los platos recién lavados, el trapo colgando del cajón. Unos pocos motivos a cuadros, rojo, azul, verde...

El objeto está en el centro de la habitación. El más conocido entre los desconocidos y el más desconocido de los conocidos. El mobiliario luce brillante pero con discreción, en perfecto equilibrio. Paredes plagadas de imágenes, ubicadas a medida, en el lugar adecuado.

Una pequeña humareda. Ha empezado a llover. Las piedras se pintan con las primeras gotas. Una sonrisa. Demasiados dientes dentro de la boca. Todo es tan conocido, pero aun así...

Fachada de cal frotada y madera. Un hilo de humo.

Dentro del cuerpo se siente el incómodo cosquilleo.

-Sí, pero...

Se ha encendido una luz que ilumina el objeto situado en el centro de la habitación. Ahora se oye el final de la 7ª sinfonía de Beethoven. En la parte inferior del plano unas manos están tendiendo calcetines negros en el colgador de fuera de la ventana. Por encima una lona azul.

Nada más llegar desaparece.

¿Cuál es la diferencia entre lo que vemos y lo que miramos?

Cuando ha parado de llover aparece sobre el centro del rectángulo, pero no completamente centrado, el esqueleto, como un gigante desnudo y hambriento.

No hay flores en la pradera en la que está posado el edificio. De momento.

Olor a petricor.

Arrate Rodriguez